



Tere Irastortza

"Idatzi beharretik eta adierazi beharretik errazagoa da irakurtzera jauzi egitea"

FATIMAK, FATOUK eta IMANek eginiko elkarrizketa

Idazle gipuzkoarra da. Zaldibiakoa izatez, Olaberrin bizi da (Gipuzkoa). Hainbat poema liburu idatzi ditu, baita sariak irabazi ere. Poesia maite du.

Pertsona batek edo egoera jakin batek inspiratu zintuen?

Idazten, 10-11 urte nituenean hasi nintzen. Ez nuen uste ezer berezia zenik. Eta horregatik jarraitu nuen beldur eta konplexu gabe. Askoz geroago sentitu nuen ez zela arrunta neska gazte batek euskaraz argitaratzea (19 urte nituen lehen liburua argitaratu nuenean) Orokorrean, uste dut norberari ondo ateratzen zaiolari bidea emanaz ikasten dela gehien, eta nik ere halaxe egin nuen.

Zein dira zure autore gogokoenak eta zer gomendatuko zenuke irakurtzea?

Gure herrira bibliobus bat etortzen zen zuen adina nuenean, eta 12 urtetik aurrera, bertan aurkitzen nuen edozein gauza hartzen nuen. Sarri ez nuen ezer ulertzen, eta orduan hasi nintzen pentsatzen zenbat zekiten nik ulertzen ez nuena idazten zutenek. Gero, gustuko generoak topatzen hasi nintzen: poesia eta antzerkia aurrena, nobelak eta ipuinak gero, eta azkenik BUPean (oraingo DBHn) oso irakasle ona izan genuen eta hark bide asko zabaldu zizkidan. Nik zer

irakurri erakusten ez dakit, baina nola irakurri... esango nizueke. Lasai jarri eta geldu irakurri. Eta denbora lasaia lortuko duzue... edota, zerbait nola esan ez dakizuenean, idatzi aspertu arte edo esaldi on bat aurkitu arte... eta gero, irakurtzen duzuen irakurtzen duzuela, halako batean aurkituko duzue esan nahi zenuten hori hobeto ulertzen eta idazten. Uste dut hori dela bidea: idatzi beharretik eta adierazi beharretik errazagoa dela irakurtzera jauzi egitea eta ez alderantziz.

Liburu bateko zein pertsonaia ezagutu eta sortzea gustatuko litzaizuke?

Irakurri dudan libururik ederrenetako batzuek arabiar jatorria dute. Bat da *Mila eta bat gauak*. Hango ipuin-kontalaria iruditu zait beti pertsonaiarik interesgarriena. Ezagutzen duzue nobela luze hori? Damasko eta Ekialdeko herrialdeetan barrenako kontakizunak dakartzana?

Idatzi ondoren, amaierarik aldatu al duzu?

Aldaketa anitz egiten dut gehienetan, esan nahi dudanarekin ziur sentitu arte. Amaitzeko beharrik sentitzen ez

dudanean, pentsatzen dut ondo dagoela. Handik aurrera ez dut aldaketarik egiten.

Ba al dago idatzi nahiko zenukeen liburu famaturik?

Bat bakarrik esatekotan, Joseba Sarrionandiak aspaldi argitatu zuen poesía antología bat: *Izkiraturik aurkitu ditudan ene poemak*.

Zer irakurtzen ari zara une honetan?

Liburu asko xamar ari naiz irakurtzen momentu honetan: Rosa eta Ana Izizen *Historia de las mujeres en Euskal Herria*

da bat; beste bat, poesia, *Festival de poesía de la Mediterrania*, katalanez; Maribel Aiertzaren *Ezer ez da dirudiena*; eta Euskara batuaren Eskuliburua. Aurreko urte honetan irakurritakoen artean hauek gomendatuko nizkizueke: Amaia Telleriaren *Haize-lekuak*, Altsasun gertatzen dena; Ione Gorostazuren *Des egiten* (poesia); Nerea Baldaren *Atzerrian*; eta askoren artean idatzitako *39 idazle nafar*. Une honetan arabieraz idazten duten bi poeta siriarren lan batzuk itzultzen ari naiz. Nik ez dakit arabierarik, baina katalanetik itzuli dut poema eder bat, Suzanne Ibrahimena. Ea gustatzen zaizuen:

Suzanne Ibrahim
Homs, Siria, 1963

XXIII. Festival de la Poesia de la Mediterrània. 2021.

UKITUA

1.

Margolan hartan geraniodun balkoia marraztu nuen,
kaiola bat... aurlki bat... eta kafe-kikara. Sartu
nintzen balkoira eta margoaren atea itxi nuen neure
atzean.

2.

Margolan hartan mahai bat, lore-ontzi bat eta bi
larrosa marraztu nituen. Sartu nintzen
margolanaren atzeko atetik, izan ere, bera uraz
ahaztu baitzen.

3.

Margolan hartan arratsalde tiraniko baten larua
margotu nuen eta nire antzeko neska baten bizkar
gainean txala, kuadrora sartu orduko txal beharrik
izan ez bazuen ere.

4.

Margolan hartan etxe dotore bat marraztu nuen
berak atea itxita utzi zituenez margolanera
sartzera behartuta sentitu nintzen

5.

Bere berrogei margolanetan barneratu nintzen, bere
gonbidatuen gaueko bizimoduak zelatatu nituen.
Erakusketa Nagusian ikusi nuen gatibu nire burua
margolanean, "saldua" zioen hartan.

6

. Margolanerako ni marrazteari utzi zionean
erregutu nion margolana ez enmarkatzeko. Gau
hartan izango nuen, agian, ateratzeko gogoia
berarekin.

7.-

Marko gabeko margolana zabaltzeko, lasatzeko eta
hazteko grina da margo eta formen ametsa,
margolan- azalera kanpoko festa baten ametsa.

Tere Irastortza. Lehen bertsioa, Suzannerekin hitz egin aurrekoa.